

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideei dagokienez, hainbat alderdiz baliatuko gara Eguzkideak enpresan.

Alde batetik, hainbat baliabide fisiko erabiliko ditugu: lokal komertzial handi bat industrialdean non gure produktuak ekoitziko ditugun, ordenagailua webgunea garatzeko eta eguneratuta edukitzeko, baita gure bezeroei zerbitzu bat eskaini ahal izateko ere. Honez gain, telefonoak ere edukiko ditugu dendetan eta lokal komertzialean aurretik aipatu bezala; era horretan gure bezeroei eskaini nahi diegun zerbitzua, eta bide batez, ekoizle eta bezeroaren arteko komunikazioa erraztuz. Makineria ez da gure enpresaren indar-puntu bat, izan ere, muntaiaz arduratuko gara.

Beste alde batetik, giza baliabideak eta baliabide intelektualak erabiliko ditugu gure produktuak arrakasta sutua izan dezan. Aner, ekonomialaria izanik, gure enpresa mantentzeak dakartzan diru kontuak eramateaz arduratuko da. Mattin, berriz, ingeniaria delarik, produktuaren diseinuaz arduratzeaz gain, kanpoko enprekin kontaktatzeaz arduratuko da bere eleaniztasunaz baliatuz. Gainera, sormena eta irudimena oso garatuak dituela esan daiteke. Magdak, aldiz, informatikaria denez, gure webgunea programatzearen prozesua garatuko du. Amaitzeko, Amaiak gure produktuari buruzko Mattinek transmititutako informazioaz baliatuz, marketingaz arduratuko da.

Azkenik, finantza baliabideei dagokienez, aipatu behar da hasiera batean gure enpresa txikia aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa izango dela bazkideon ekarpen soziala, baita beste enpresena ere.

